



Berrien buletina

AGOIZKO UDALA

www.agoitz.eus – www.facebook.com/ayuntamientoaoiz

n°55-2022ko urtarrila
ABENDUA LABURPENA

2022rako aurrekontuak onetsi dira

3.637.275 euro. Agoizko Udalak datorren 2022rako onartu zuen aurrekontuaren zenbatekoa da hori. 2021eko aurrekontuekiko ia milioi bat euro gehiago dira. Hiru faktore nagusik eragin dute igoera. Alde batetik, Itoizko urtegiagatiko konpentsazioekin lotutako partida berriak onetsi dira: 400.000 euroko partida bat, EH-Bilduk eta Gobernuak adostutakoa, urtegiak kaltetutako lau udalerrientzat, zeinetatik Agoizko Udalak 188.000 jasoko dituen; eta Proiektu Estrategikoetako arloko 250.000 euroko beste partida bat, Agoizko udalarentzako 117.500 euro aurrikusia dituen. Bestalde, udalak finantzatzeko eredu berria onetsi da: bertan, Agoitz eskualdeko trakzio-udalerritzat hartuta dago, eta, ondorioz 133.000 euro gehiago emanen zaizkio. Azkenik, IDAEk (Trantsizio Ekologikorako

eta Erronka Demografikorako Ministerioa) kudeatzen dituen Next Generation Europako berriskuratzeko-funtsen diru-laguntzen deialdiengatik diru-sarrerak handituko lituzkete (dirulaguntza onetsiko balitz). Laguntza horiek % 85etik % 100era bitartekoak dira, eta DUS 5.000 funtsak ematen ditu (5.000 biztanletik beherrako herrietarako). Agoitzek bost proiektu handirako finantzaketa eskatu du, 676.000 eurokoa guztira, eta guztiek dute izendatzaile komun bat: energia aurrezte eta berriztagarrien aldeko apustua.

Asmoa da lan hauek egitea: Udal igerilekuko inguratzaile terminala (estalkia) berritzea, Toki Eder frontoian autokontsumorako instalazio fotovoltaiko bat sortzea (udal-eraikinen kontsumorako eguzki-plakekin), eta udaletxean,

Haur Eskolan eta Gizartetxean gasolio-galdarak kendu eta arotermia bidezko hiru klimatizazio sistema sortzea. Diru-laguntza horiek ematen ez badira, proiektuak atzeratu egingen dira, beste une batean gauzatzeko.

Halaber, Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzen deialdiaren zain, inbertsioen kapituluan beste proiektu batzuk planteatzen dira. Laguntza bilatuko da ikastetxeko kanpoko arrotzeria berritzeko (60.000 euro) eta kirol-pistan harmaila bat sortzeko (29.000 euro). Ildo beretik, pilotalekuko eta futbol-zelaiko argiztapena (LEDera) aldatzea aurreikusten da (100.000 euro); gainera, 20.000 euro erabiliko dira haur-parkeak berritzeko, eta 37.000 euro Gizartetxearen eraikinaren 2. solairua eraberritzeko eta gizarte-kolektiboentzako erabilera-gune bihurtzeko.

Horretaz gain, osoko bilkuren saio berean bi aurrekontu gehiago onartu ziren: Agoizko Udaleko Musika Eskolaren Patronatuarena, 193.150 eurokoa (80.000 euroko diru-laguntza izanen du) eta Kanpooda enpresa publikoarena, 512.000 eurokoa (240.000 euro udalaren ekarpenaren bidez finantzatuko dena). 2022ko ekitaldirako zergak, tasak eta plantilla organikoa onartu ziren (aurreko urtearekiko ez da aldaketarik izan).



AYUNTAMIENTO DE AOIZ
AGOIZKO UDALA



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua



AGOIZKO UDALAREN KOMUNIKAZIO, INFORMAZIO ETA PARTAIDETZA PLANA 2022

Berrien buletin hau e-mailez jaso nahi baduzu, igorri mezu bat comunicacionaoiz@gmail.com-ra, eta bertan adierazi gaia, hots, buletina.

400.000 euro, Itoizko Urtegiak kaltetutako udalerrientzat

Nafarroako Parlamentuak, 2022ko Aurrekontuak prestatzeko batzordeak egindako eztabaida-saio batean (toki entitateak finantzatzeko eredia aztertzen zuena), hainbat zuzenketa onartu ziren, ehun bat herritako obrak eta jarduerak finantzatzeko.

Lurralde Kohesiorako Departamentuari 143 zuzenketa eztabaidatu ziren, eta horietatik 64 onartu ziren. Navarra Sumak proposatutako bat ere ez. Gainerako talde parlamentarioek Javier Esparzaren koalizioak aurkeztutako 50 bat aldaketa errefusatu zituzten parlamentuko alderdiek. Zuzenketa horietako batzuek milioi askoko aurrekontu-zuzkidura planteatzen zuten, baina, ordea,

ez zuten bideragarritasunik. Hori gertatu zen, besteak beste, aurreko ekitaldian ere aurkeztu zuen zuzenketa batekin: 18 milioi euroko zenbatekoa zuen, Itoiz-Nafarroako Ubidea Fundazioak egiteke dituen proiektuak konpentsatzeko. Fundazioa, ordea, Yolanda Barcinaren gobernuak kitatzea erabaki zuen 2014. Urtean. Garai hartan obra batzuk hasita zeuden eta diru-laguntzarik gabe utzi zituen; ondorioz, inguruko udalek ordaindu behar izan zituzten gastu horiek.

Parlamentuak, baina, onartu egin zuen EH Bilduk aurkeztutako 400.000 euroko zuzenketa bat, Itoizko urtegiak kaltetutako herriak konpentsatzeko. Pro-

posamen horiek Parlamentuko talde guztien babesa izan zuten, Navarra Sumarena izan ezik (guztien aurka bozkatu zuen). Koalizio abertzalearen arabera, zuzenketa horien bidez aurrekontuetan jada jasota dagoen partida baten banaketa bermatu nahi da, azpiegitura jasateagatik urtegiaren ondoko herriek jasaten duten kaltea aldi baterako arintzeko.

EH Bilduk finantzaketa arrunt eta egonkorra eskatu zuen, foru lege baten bidez, Itoizek kaltetutako herrientzat, urtegiak zonari egingen dion kaltea justifikatuz, eta Nafarroako beste eskualde batzuei kanalari esker ahalbidetzen dien garapena.



Turismo Jasangarritasunerako Plana: Pirinioaurrea eta Zangoza



Nafarroako Gobernuak Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Zuzendaritza Nagusiak abian jarri ditu Turismo Guneak Kudeatzeko Unitateak (UGET). Horietako bat Pirinioaurrea eta Zangozako eskualdea dira. Turismoa kudeatzeko sistema berri bat ezarri nahi da lurralde osoan, plangintzan, koordinazioan eta antolaketa eraginkorrean zentratua, Next Generation funtsek sektorea eraldatzeko eskaintzen diguten aukera aprobetxatuz. Era berean, ezinbestekoa da lurraldeko eragileen lankidetzaren eta Nafarroako Gobernuak beste departamentu eta enpresa publiko batzuekiko lankidetzaren.

Ibilbide berri honen lehen urratsa Nafarroako helmugan jasangarritasun turistikoaren plana egitea da. Plan hori azaroaren 30ean hasi zen, programatutako hiru

partaidetza-bileretatik lehenengoarekin. Zangozan egin zen, eta lehenengo topaketa horretan, tokiko erakundeek, turismo-eragileen eta, oro har, herritarren parte-hartzearekin, turismoaren diagnostikoa eta analisia islatu nahi izan zen gure UGET Pirinioaurrean-Zangozan.

Bigarren saioa Agoitzen egin zen abenduaren 21ean, eta bertan zehaztu ziren jarraitu beharreko ildo estrategikoak eta Ekintza Turistikoko Planaren parte izanen diren jarduerak, datozen 3 urteetan gure eskualdean turismo jasangarri baterako eraldaketa planifikatu eta garatzeko balioko dutenak, eta Europako eta eskualdeko funtsetarako sarbidea ahalbidetuko dutenak. Hirugarren bilera bat egitea falta da, eta data zehazten denean jakinaraziko da. Zuen parte-hartzea funtsezkoa

da, beraz, parte hartzerantz animatzen zaituztegu.

LANKIDETZA-HITZARMENA. Agoizko Udalak, Pirinioaurreko eta Zangozako Eskualdeko gainerako Udalekin batera, turismo iraunkorraren arloan estrategia komun bat garatzeko hitzarmena sinatu dute, zonaldearen garapen sozio-ekonomikoan eragina izanen duena. Alde horretatik, hitzarmen honen helburua da erakunde sinatzaileen arteko lankidetzaren eta koordinazioaren nondik norakoak definitzea, Pirinioen aurreko eta Zangozako eskualdeko turismoa sustatu eta garatzeko ekintzak eta proiektuak programatu eta gauzatzeko. Hitzarmena sinatu duten herri guztiek finantzatutako dituzte kudeaketa ekonomikoa eta funtzionamenduaren ondoriozko kostuak, udalerrri bakoitzeko biztanle-kopuruaren arabera.

Elizak 2.952 ondasun inmatriculatu ditu



Eduardo Santos Migrazio Politike-tarako eta Justiziarako kontseilariak 1900. urtetik aurrera Elizak Foru Komunitatean inmatriculatutako ondasunei buruko Jaabetza Erregistroko 2.952 ohar aurkeztu zituen Nafarroako Parlamentuan, eta, horrela, Parlamentuaren agindu bat bete zuen, Foru Gobernuari informazio hori biltzeko eskatzen ziona. Ondasun guztien % 33 tenplu eta antzeko eraikinei dagokie, eta guztira 575 futbol-zelaiko azalera hartzen dute.

Azterlana uste baino askoz urrunagora ailegatu da, eta egoeraren irudi zehatza eskaintzen du. Izan ere, Jabetza Erregistratzaileen Elkargoaren bidez bildu diren ohar sinpleen antzinasuna 1900. Urtera heltzen da. Urte horren eta 2015aren artean 2.952 ondasun inmatriculatu ziren guztira, Eliza katolikoak 1946ko legeria frankistari eta 1998an Aznarren Gobernuak onartutako Hipoteka Legearen erreformari esker, 2015. ean inmatriculatzeko ahalmena galdu zuen.

Aztertutako mendea horretan zehar, inmatriculazio kopuru han-

diagoko hainbat garai izan dira. Lehena 1931n, Espainiako Bigarren Errepublikaren aldarrikatu eta bi hilabetera, 113 ondasun; Egoitza Santuarekin Konkordatua sinatu ondoren, 1979 eta 1981 bitartean, Nafarroako Elizak 1.329 ondasun inmatriculatu zituen; eta bakarrik 2003 eta 2006 artean, 865.

Inmatriculatutako ondasunen motari dagokionez, 981 tenplu eta eraikin asimilatu daude, hau da, guztizkoaren % 33; gainerakoak nekazaritza-lurak eta soroak, baso-espazioak, etxebizitzak, frontoiak, hilerriak, zahar-etxeak (eta garai bat ere) dira, besteak beste.

Agoitzen, zehazki, zortzi ondasun adierazten ditu zerrendak. Besteak beste, tenplua eta parroquia-etxea, ataria, garaje bat eta finka bat Legearen alderdian.

ETA ORAIN ZER? Jabetzak direla-eta auzitan aritzeko aukera udalei dagokie, baina oso lan konplexua da, eta zailagoa ere bada, ondasun batzuk salduta daudelako.

Edonola ere, Nafarroako Gober-

nua prest dago udalei laguntzeko eta ondasun komunalen inmatriculazioa aztertzeko, Gobernuak zuzenean esku har baitezake. Aztertzen ari gara aurrekontu-partidak gaitzea ondasun horiek zehazki aztertzeko, zeintzuk diren eta «berreskuratzeko aukerak» zehazteko.

Bestalde, Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataformak bere poza erakutsi zuen, «Arrakasta» izan delakoan. "Foru Gobernuak Nafarroako Elizaren inmatriculazioen ohar sinpleak aurkeztu izana Aurrekaririk gabeko aurrerapena" izan dela uste du.

Andres Valentin bozeramaileak, salatu zuen eskuineko indar politikoak, haien epaileak eta komunikabideak, ordea, prest daudela Elizari pribilegio frankista hori mantentzeko. Orain, ziurtatu zenez, bi bide irekitzen dira, eta funtsezkoa da NUPekin hitzarmen bat sinatzea, jakiteko zer ondasun diren komunalak. Gainera, Valentinek uste du beharrezkoa dela toki-erakundeei eta partikularrei aholkuak ematea ondasunak berreskuratu ahal izateko, adibidez, bulego baten bidez.

Udal Txiki berria eratu da

Urtea amaitzeaz zegoela, eta pandemiak behartutako etenaldi baten ondoren, Agoizko Udal Txikia hautatu zuen berriro, eta 2022 osoan protagonismo aktiboa izanen du. Bere zeregina ez da abuztuko jai handietan Haurren Egunera mugatuko, baizik eta urtean zehar luzatuko da udal, jai eta herri agendako ekitaldi ofizialetan.

Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleek, ohi bezala, udal txiki berria aukeratzeko bozketa egin zuten. Udal txiki horrek, urte osoan zehar, txikiak ordezkatzeko ditu hainbat ekitalditan, aurreko korporazioek egin duten bezala.

Udala honela osatuta gelditu da: Kimetz Romero, alkate; Unai Lizoain, Adur San Martín, Joel Romero, Oier Claveria, Nahia Sola, Maika Lizoain, Ainhoa Esain, Aiora Larrea, Leire Javier eta Oier Nicuesa, zinegotzi; eta hauek izanen dira ordezkariak: Unax Arcelus, Iker Betelu, Julen Valdivia eta Xabier Mancebo. Guztiek herrian parte

aktiboa edukitzearekiko ilusioa agertu zuten.

Alkatea eta zinegotzi-taldea Lehen Hezkuntzako seigarren mailako ikasleen artean aukeratu zituzten bi hizkuntza-ereduetan, euskaraz eta gaztelaniaz.

Udalbatza berria jendaurrean estreinatu zen Olentzerori egindako harreran. Gauza bera egin zuen Errege Magoak hirira iritsi

zirenean.

Gabonen ondoren, inauteriak izanen dira protagonista berriro. Baina udalbatza ez da festara mugatuko; aitzitik, urte osoan zehar auzo-gaiak eztabaidatuko ditu, interes komunekoak, saio praktikoekin eta osoko bilkura ofizialarekin, eta mozio landuak eramanen dituzte bertara. Udalak bideragarriak direnak zainduko ditu.



Agoizko Zokoko bigarren edizioa ospatu da

Abenduaren 12an, Agoizko erdigune historikoak Zokoaren bigarren edizioa bizi izan zuen. Ekimen hori irailean abiatu zen, eta arrakasta handia izan zuen. Oraingoan, 52 artisautza-postu (herriko 11) eta 5 gizarte-kolektibo agoizkoak bildu zituen, Mendiburutik Nafarroa Beherea plazaraino, Kale Berria okupatu zutenak, baita Merkatu plaza ere. Erakundearen helburuen artean, hurbileko merkataritza eta ostalaritza dinamizatzea, eta eskualdearentzat topagune bat sortzea, Agoizko ondarea eta kultura-berastasuna ezagutarazteaz gain.

Bigarren edizio honetako berrikuntza Zokoko tonbola izan zen. Txartel guztiak azkar agortu ziren eta 130 sari baino gehiago banatu zituen, Agoizko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuetako 44 establezimenduek eskainitakoak.

Egitaraua osatzeko, kaleko animazioa Farandulandia Ikuskizunen bidez (antzokiak, ipuin kontalariak eta kalejirak), forjaketa erakustaldia Iñigo Txibite Lizarragaren eskutik Merkatu plazan eta Saharako kolektiboak bere herriko jaki tipikoak dastatu zi-

tuen. Umeentzako tailerrak eta dinamizazioa ere izan ziren, Guraso Elkarateak eta Maite Luquinek sustatuak. Gainera, Irati HHSko Mankomunitateak birziklatzarekin eta edukiontzia behar bezala erabiltzarekin lotutako joko interaktibo interesgarriak proposatu zituzkien publiko guztiari.

Oraingo honetan, nahiz eta hitzordua irailean egindakoa bezain jendetsua ez izan, hirira iritsi ziren antolatzaile eta merkataria pozik agertu ziren, eguraldia lagun izan zuten egun batean ekitaldia garatu eta saldu zutelako.

Vampire Academy telesailak bere karabanak ezarri zituen Agoizko industrialdean

Nazioarteko fikziozko Vampire Academy serieko lantaldeak aldi baterako logistika-base bat jarri zuen Agoizko industrialdean, abenduan Aiantzeko Jaurerrian egiten aritu den filmaketari laguntzeko. Seriea irailetik grabatzen ari dira Foru Erkidegoan, Olite edo Aiantzen, besteak beste, eta 2022ko martxoan amaitzea aurreikusten da. Erro-dajearen ekipoa Aspace eta Sie-

mens Gamesaren nabeen artean kokatu zen, eta hamar bat etxebizitza-modulu, hainbat denda eta kamioi lekualdatu zituzten. Agoizko Udalak Vampire Academyko talde teknikoaren dei bat jaso zuen, industrialdeko oruberen bat egun batzuetan okupatzeko eskatuz. Alokairu-tasa bat ordainduko dute, besteetan egindako moduan: Aspacek edukiontzia ekarri zituenean edo itxitako

plantan Siemens Gamesaren egindako palak uzteko. Agoizko industrialdeko espazio hil hori serie ezagunaren logistikaren aldi baterako egonaldi gisa erabili zen.

Industrialdeak itxura aldatzen zuela ikusita eta herritar askok agertutako jakin-minaren ondorioz, komunikatu bat zabaldu zen, egoeraren berri emateko.

Kultur balantzea

Abenduan ohiko kultur agendari jarraitu zitzaion, nahiz eta programatutako jarduera gehienak Gabonen ospakizunetan murgilduta egon.

Musika izan zen nagusi Nafarroaren Egunean, San Miguel Abesbatzaren kontzertuarekin. Nafarroako Abesbatzen Federazioak, Nafarroako Gobernuarekin elkarlanean, 28 kontzertu antolatu zituen hainbat herritan, eta Agoizko parrokia izan zen Agoizko abesbatzaren eszenatokia.

Josetxo Paternain Nagore Agoizko bizilagunak "Batiburrito agoizko" liburua aurkeztu zuen Aurelio León aretoan (gainezka zegoen). Nafarroako Artxibategi Oroko-

rean, Elizbarrutikoan eta Agoizko Udalekoan egindako ikerketa historiko askotarikoa biltzen du 37 kapitulutan.

Ibilbide bat da, Agoizko historia hurbiletik ibilaldi bat, irudi eta datu bitxiz behar bezala dokumentatua eta erreferentziatua: Herriko antzinako ermitak, karlistadak, irin-errotarekin lotutako ika-mikak... eta Paternainek gogokoen duen gaia: kapaginen gremio zaharra.

Hilabete honetako erakusketa modu birtualean aurkeztu zen. Palestinan errefuxiatutako pertsonen sentsibilizatzeko proiektuari buruzkoa: "Noor: argizatzen

duen emakumeak". Nafarroako herritar global, informatu, kritiko, solidario eta Giza Eskubideekiko eta Genero Berdintasunarekiko konprometitua sortzen lagundu nahi du. Testuinguru berean, solasaldi bat egin zen, Palestinan errefuxiatutako pertsona baten testigantzarekin.

Antzerkiak ere lekua izan zuen abenduan. Erretiratuen, alargunen eta pentsiodunen Agoizko Plataformak, Irati Antzerki Taldearen zuzendaritzarekin, antzerki-tailer bat egin zuen, eta agertokiaren gainean bi emanalditan islatu zen. Emanaldi horietan, sarrerak agortu egin ziren, El Milagrorekin ikusteko eta gozatzeko.



Eguberrietako balantzea

Gabonetako jardueren programazioko protagonismoaren zati handi bat hainbat formatutako musikak izan du. Agoizko Musika Eskolak Gabonetako ohiko kontzertua egin zuen Kultur Etxean. Ekitaldi horrek entzuleen edukiera osatu zuen. Era berean, eta arrakasta handiz, Mariano Garcia



Bandaren Gabonetako kontzertuez gozatu genuen, Kultur Etxean, eta Agoizko San Migel Abesbatzarena, Hiribilduko elizan.

San Miguel Ikastetxeak urte amaierako jaia egin zuen, eta haur eskolak Olentzeroren bisita berezia izan zuen txikientzat eta haien familientzat.

Beste urte batez, Udaleko kultura arloak Patxi Huartek, «Plastikatzen Gabonetan», ematen duen euskarazko arte plastikoei buruzko ikastaroa antolatu zuen. 5 eta 12 urte bitarteko hurrei eskainitako 30 plazak bete zituen

ikastaro horrek.

Gabonetan, Jaiotzazaleen Elkar-teak egindako eta Bilaketako Ahots eta Talde Instrumentalak alaitutako jaiotzak bisitatu, Olentzero ospatu, Ekialdeko Maiestateen morroiak harrera egin eta Errege Magoen Kabalgataz gozatu ahal izan zen.



Kanpondoa, etorkizuneko apostua

Agoizko Udalak, herriko kirol-instalazioak kudeatzeko, enpresa publiko bat sortzea erabaki zuen 2012an. Horrela, urte horretako irailaren 12an Kanpondoa eratu zuen. Ordura arte, enpresa pribatu batek kudeatzen zituen instalazioak. Aldaketa horren bidez, kontrol handiagoa izan nahi zen kirol-gunearen ohiko erabileran, eta enpresa horri kirol-jarduera zabalak bideratzeko gaitasunak eman nahi zitzaizkion. Berez enpresa horiek defizitarioak diren arren, ia 10 urte hauetan Kanpondoaren eta Udalaren apustu eta konpromisoa

irmao eta iraunkorra izan da, ez soilik alderdi ekonomikoagatik, baita kirol eta gizarte arloagatik ere.

Kanpondoaren filosofiaren eta funtzionamenduaren balioetako bat gardentasuna eta herritarren parte-hartzea dira. Horregatik, abenduaren 14an batzar bat egiteko deia egin zen, herritar guztiei irekia, eta bertan batzarraren kudeaketa ereduaz azaldu zen. Rubén Jiménez enpresako gerenteak eta Ángel Martín Unzué enpresako administrazio-kontseiluko presidentek instalazioaren arlo

guztietako funtzionamendu- eta antolamendu-sistemak eta bakoitzaren helburuak zehaztu zituzten. Bost oinarri ditu Kanpondoko azpiegitura osoak: espazioak, kirol-eskaintza, langileak, energia eta mantenua, eta ekonomia. Horietan guztietan, eta Rubenek azaldu zuenez, etengabe egiten dira zenbakizko erregistroak, kontsumoen, datuen, asistentzien, maiztasunen, kostuen... erregistroak, eta horrek, instalazioak erabiltzen dituenaren iritziekin eta iradokizunekin batera, esparru guztietan hobetzeko gaitasuna errealitate bihurtzen du. Adibide bat aski da: gasaren kostua ia erdira jaitsi da urtebetean.

Kanpondoaren asmoa bere ardatz guztietan hobetzen eta berritzen jarraitzea da, erronka berrietara irekiz. Horretarako, beharrezkoa da herritar guztien parte-hartzea, iritzia eta/edo iradokizunak. Azken batean, Agoizko pertsona guztiok egiten dugu Kanpondoa posible izatea.

